



216. zenbakia

MARTXOA 2022 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Anuenatura eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Borroka bikingoa berregin zuten Latasan (Imotzen), otsailaren 20an. Aker Gorriakek, berregite historikoak egiten dituen taldeak, bidalitako argazkia.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira martxoaren 11an bidalia



ETORRIKO DIRA -

“

Ez zaitzatela engainatu.

Etorriko dira, horixe
etorriko direna
hautatu ez genituen
alternatiba guztiak.

Pluraleko lehena. Puntu.

Jakina etorriko direna.
Arranditsuki agertuko dira
oasia, delirium tremensa,
paradisu fiskala eta oparotasuna
agertzen diren ber gisa.

Kontu eske etorriko dira,
tankera ezberdinetan,
denak apartak, oso merkeak,
gozoak, jainkorik eta
ordenarik gabeko mugen
irudi hipnotikoak,
baztertutako bide guztiak,
egin gabeko akats guztiak.
Etorriko dira, kontu eske.

Eta urka-bilurrak diruditen
mihia ekarriko dituzte
eta erretorika errukigabea
eta diskurtso irabazleak
damutu gaitezen.

Gupidagabe jokatu dute.
Apustua igoko dute.

Hori gertatzen denean,
deituidazu.
Bikoitza edo ezer ez.
Geuk irabazi.

Ez zaitzatela engainatu. ”

**Gata Cattana
(Vendrán)**

***Euskaratzailea:
Gotzon Barandiaran
(armiarma.eus, 2020)***



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra





Loaren

garrantzia

Zergatik da hain garrantzitsua gauetan ongi deskantsatzea?

Lo gaudenean garuneko eta gorputzeko funtzioek aktibo jarraitzen dute. Lo informazio berria prozesatzen, osasuntsu mantentzen eta deskantsatua sentitzen laguntzen duen prozesu biologiko konplexua da.

Loaldian, gure garuna bost fasetatik igarotzen da, eta horietako bakoitzean uhin-patroi desberdinak pasatzen ditu. Lo eteten edo mozten zaien pertsonak ez dute etapa bakoitzean behar den denbora pasatzen.

Fase horiek ongi deskantsatuta eta energiarekin sentiarazten gaituzte hurrengo egunean; informazioak jasotzen, hausnarketak egiten eta oroitzapenak osatzen; bihotza eta sistema baskularra deskantsatzen; haurrak hazteko hormona gehiago askatzen dira. Gihar masa handitzen eta zelulen eta ehunen konponketan ere laguntzen du, haurrengan nahiz helduengan. Hormona sexualak ere askatzen dira, pubertaroan eta ugalkortasunean onurak dakartzana. Gainera, gaixotzea ekiditen eta sendatze prozesuan laguntzen du, eta infekzio desberdinen aurrean gure immunitate-sistemak hobeki erantzuteko hormonak sortzen ditu.

Pertsona bakoitzak behar duen lo kantitatea hainbat faktoreren arabera da, hala nola, adina, bizi estiloa eta osasun egoera. Ondorengoak dira gomendio orokorrak:

- **Jaioberriak:** egunean 16-18 ordu
- **Eskolaratu aurreko haurrak:** egunean 11-12 ordu
- **Eskolaratutako haurrak:** gutxienez egunean 10 ordu
- **Nerabeak:** egunean 9-10 ordu
- **Helduak** (eta adinekoak): egunean 7-8 ordu

Adinarekin, aldatuz doa loa ere. Urteekin, arinagoa eta motzagoa bilakatzen da, gauean gehiagotan esnatzen gara, eta lo hartu aurretik ere denbora gehiago ematen dugu ohean. Dena dela, garrantzitsua da loan egon daitezkeen aldaketa guzti horiek benetako insomnioarekin desberdintzen jakitea.

Zer egin dezaket lo hobeki egiteko?

Zure lo ohiturak hobetzeko zenbait neurri har ditzakezu. Hasteko, lotarako nahikoa denbora izatea berma ezazu. Ondoko neurri hauek ere lagundu dezakete:

- Ordutegi erregularrak mantendu, lotarako eta esnatzeko ordu zehatzekin, modu horretan, lo aldiko eta esna aldiko zikloa ezarriko duzu.
- Egunean siesta bat baino gehiago egitea ekidin, eta hori ez dadila oso luzea izan.
- Otordu oso pisutsuak ekidin, eta baita kafeina, nikotina eta alkohola ere, bereziki arratsalde eta gauetan.

- Ariketa fisikoa egin maiztasun batekin, baina ez oso berandu.

- Lotara sartu aurretik erlaxatu, adibidez, bainu bat hartuz, irakurriz edo musika lasaia entzunez. Ez esfortzu intelektual handirik egin ohera sartu aurretik.

- Logela eroso izan dadin saia zaitez, ez dezala ez bero ez hotz handirik egin. Mantendu gela ilunpean, eta saiatu soinurik egon ez dadin. Lotarako arropa eroso erabili.

- 20 minutura lorik hartzen ez baduzu, jaiki eta erlaxatzeko zerbait egin ezazu.

- Zurrunkak egiten dituen norbaitekin lo egiten baduzu, komenigarria izan daiteke egun batzuetan beste gela batean lo egitea, loa normalizatu arte.

- Gauetan pixa egitera askotan esnatzen bazara, arratsaldeko 18:00etatik aurrera saiatu edaten duzun likido kantitatea gutxitzen.

- Lotarako etengabeko arazoak badituzu, medikuarekin kontsulta ezazu.





Lehen sektorea, kinka larrian

Zaharrak berri. Abeltzainak kalean ikusi ditugu berriz ere, bidezko prezioak eskatzeko, baina pentsuaren eta gastuen igoerarekin, egoera are larriagoa da orain. Izan ere, litro bat esne kilo bat pentsu baino merkeago ordaintzen da. Esne behien sektorea, hain zuzen ere, estutuenetakoa da, eta izugarrizko mobilizazioetan ikusi dugu. Baina ez da bakarra.

Esne behien sektorea supermerkatu handien ateetan ikusi genuen abenduan, esnearen prezioa igotzea eskatzeko. Iruñean ez ezik, Hego Euskal Herriko beste hiriburuetan ere ikusi ditugu mobilizazioak, EHNE Nafarroa, EHNE Bizkaia, ENBA eta UAGA eta UAGN sindikatuek deituta.

Nafarroan, gainera, EHNE Nafarroa eta UAGNk manifestazioa deitu zuten Iruñean, martxoaren 3an, saltoki handi bakar batzuek bakarrik bete dituztelako eskaerak, esnearen prezioa igotzea, alegia. Izan ere, aipatu bezala, esnearen

sektorea estutuenetako bat izan da, baina ez da bakarra. Inflazioaren ondorioz gastuek gora eta gora egiten dute egunero, eta horrek kinka larrian jarri du lehen sektorea.

Gastuen igoerak ez du etenik

Abeltzainei esnearen truke ordaintzen zaien prezioa hamarkadetan aldatu ez bada, gastuen igoera etengabekoa da, are gehiago egungo inflazioarekin. Begoña Okiñena etxalekuarrak EHNE Nafarroan lan egiten du: "Pentsuaren igoera aspaldikoa da, baina orain argia, ongarrantzeko gaiak, dena doa goraka eta esne ekoizleen egoera oso larria da. Litro esnearengatik dirua galtzen ari dira. Kilo bat pentsu, litro bat esne baino garestiagoa da".

Gotzone Sestorain leitzarria Habelarteko - mendialdeko baserri-tarren elkarteko- bozeramalea da: "Adibide bat jarriko dizut: guk gazta egiten dugu, ardiak jezten ditugu garai honetan, goizez eta arratsalde, eta argindarraren faktura bikoiztu baino gehiago egin zaigu prezio igoera honekin. Gasolioa egunetik egunera igotzen ari da; eta pentsua igo da denetan, %30 joan den urtetik. Guk transgenikorik gabeko pentsua hartzen dugu, joan den urtean 28 zentimo pagatzen genuen eta aurtun 38. Gauza bera gertatzen da ekologikoan ari diren oilo erruleen kasuan ere, 56 zentimo ordaintzetik 72 ordaintzera pasatu dira. Marjinak geroz eta txikiagoak dira, lehen txikiak baziren, orain askoz ere txikiagoak".

Esan bezala, egoera izugarri larriagotu da azken hilabeteetan, baina Sestorainek azpimarratzen duenez arazoa ez da berria: "Hau aspalditik datorren kontua da. Aspaldi ari da sektorea ahultzen marjinak gero eta txikiagoak direlako. Azken 20-25 urteetan kostuak ikaragarri igotzen ari dira. Guk, esate baterako, duela 20 urte 3.000 euro gastatzen genituen pentsuan, orduko 500.000 pezeta. Gaur egun 15.000-16.000 eurotan dabilta gure kostuak. Argindarrarekin eta gasolioarekin gauza bera gertatzen da eta, ikusten denarengatik, igotzen segituko du".

“
Begoña Okiñena, EHNE:
Kilo bat pentsu,
litro bat esne baino
garestiagoa da”



Martxoaren 3ko manifestazioa, Iruñean.



Eskualdeko abeltzainak

Gure eskualdeko abeltzainengana jo dugu, eta haserrea nabaria da. Batzuek ez zuten erreportajea agertu ere egin nahi, egoerarekin nazkatuta eta aldarrikatzeko gogorik gabe ere gelditu direlako. Gaurkotasun-albisteetan dauden seinale txarra dela adierazi digute, eta, normala den bezala, ez zaie gustatzen egoera larria denean bakarrik gogoratzea beraiekin.

Dena den, batzuen egoera ezagutzeko aukera izan dugu eta egoera kritikoan daudela diote, irabazi alderik gabe eta zituzten planak bertan behera uzteko beharrean.

Maitane Arbillak ahizparekin esne behiak ditu Iraizotzen (Ultzama): "Pentsua dago puff... esan ziguten udaberrian prezioa jaitsiko zela baina orain esan digute ezetz, eta gainera igual igo egingo dela. Gasolioa, argia ere gora... Guk aurreikusten genituen gauza batzuk pixkanaka egitea baina horrelako egoerarekin ezin dugu. Adibidez, ingurumenarekin pixka bat konprometitu nahi genuen eguzki panelak jarritz, esate baterako, aldi berean fakturaren prezioa ere jaitsi genezakeelakoan. Baina egoera

honetan ezin dugu. Gero asmoa ere bazen pixen putzua estaltzea zeren euriarekin gure putzua agudo betetzen da eta horrek ekartzen du minda (purina) atera behar izatea nahi baino gehiagotan. Hori ere ezin da... Konponbide bakarra, prezio justu bat izatea merkatuan. Ez da oso argia izan behar ikusteko horrela ezin dela".

Miguel Angel Oartzunek ardiak ditu Egillorren (Atetzen): "Kinka larri-larrian gaude, esnetarako behiak oso gaizki daude, baina gu ere egoera kritikoan gaude. Esnearengatik pixka bat gehiago ordaintzen digute baina ez pentsuarenigoeraren portzentaia. Pentsua izugarri igotzen ari da, %30-%40 artean, eta esnea %5 inguru gehiago ordaintzen digute, edo gutxiago. Beraz, ez dakit zer pentsatu. Nik ikulua modernizatu nahi nuen eta pixka bat gehiago handitu, errentagarritasuna pixka bat handitzeko langile bat daukadalako eta bi soldata atera nahiko nituzke, egun libreake ere izateko, baina honek ez du nahikoa ematen. Pena bat da, ilusioa daukat baina gogoak kentzen zaizkizu. Ez dakit zer gertatuko den, baina gauza aldatzen ez bada ez da abeltzain gazterik egonen, ez gazterik ez zaharrik..."

Miguel Angel Oartzun, artzaina:
"Pena bat da, ilusioa daukat baina gogoak kentzen zaizkizu"



Miguel Angel Oartzun, Egillorren ditu ardiak ▲



▲ Tratoreak atera zituzten manifestazioan



Elikagaien Katearen Legea

Lehen sektorearen egoera hobetzeko asmoz Elikagaien Katearen Legea onartu zen Espainiako kongresuan abenduaren 2an. Orduetik, Mercadonak bakarrik igo du esnearen prezioa. Begoña Okiñena, EHNE Nafarroa: "Mercadonak 3 zentimo igo du prezioa, espero dugu nekazariendako izatea, baina hori ez da nahikoa, Mercadonak bakarrik egitearekin ez dugu ezer egiten, beste guztiek egin beharko lukete eta ez dute bete".

Gainera, legea bakarrik ez da nahikoa: "Legea behar beharrezkoa zen, oso kontent gaude. Baina ez da berdin Baztanen ekoiztea edo Cuencan ekoiztea, gastuak merkeagoak dira Cuencan, baldintza hobeak dituzte, Erriberan ere bai. Ez da berdina Azpiroz batean, dena malda delako, produkzioa garestiagoa da. Horregatik, ez da nahikoa, oso ongi dago baina zehaztasun gehiago behar ditugu. Eta, legea zintzo bete behar da".

Gotzone Sestorainek, Habelartetik, behatoki bat proposatzen du: "Lege asko ateratzen dira baina horiek gero betearaziegin behar dira. Nafarroako administrazioak prezioen behatoki bat sortu beharko luke eta behatoki horretan baserritarrak, industria arlokoak, industria eraldatzaileak, banatzaileak, kontsumitzaileak, denok egon beharko ginateke. Produktuen eta elikagaien azken prezioan ongi jasota egon behar lirateke kate guztian gaudenon kostuak, hori lortzeko. Kostu horietan eskulana ere kontuan hartu behar da eta gainera soldata duina, baserritarrentzat, soldatapeko langileentzat, industrian lanean ari direnentzat eta baita merkataritzan eta banatze lanetan ari direnentzat, guztientzat. Horrek zer esan nahi du? Askotan elikagaien prezioak altuagoak izan beharko luketela. Eta, aldi berean kontrola ere izan beharko du behatokiaren funtzioa, benetan ikusteko legeak esaten duena betetzen dela eta behatokiak markatzen dituen erreferentziazko prezioak betetzen ez badira zigorrak egoteko".

“

Maitane Arbilla, abeltzaina:
Ez da oso argia izan behar ikusteko horrela ezin dela

”

Kontsumitzaileek, gehiago ordaindu

Abeltzainendako etanekazariendako gastuak gora doazen bezala, herritarrok ere poltsikoak urratu beharrean gabilta, eta, beraz, baserritarrendako bidezkoena dena, batzuekiko supermerkatuan gehiago ordaindu behar izatea arazo larria izan daiteke. Gotzone Sestorain: "Esnea 50 zentimotan pagatzea kriminala da, gutxienez 75 zentimotan ordaindu beharko genuke, eta hortik gora. Arkumea superfizie handietan 7-8 eurotan ikustea irain bat da guretzat. 12-13 euro kiloan ordaindu beharko genuke gutxienez, baserritarri benetan prezio justua ordainduko bazaio. Duela 50 urte soldataren %50 ordaintzen zuen jendeak elikagaiengandik; gaur, badira estudioak diotenak %15era ez dela iristen, hori ikaragarria da".

Kezka ulertzen du, dena den, Sestorainek, eta, horregatik, dirulaguntzak modu justuagoan banatzea beharrezkoa da bere ustez. Azkeneko PACak 100.000 €ko topea jarri du ustiatzeko. Nekazaritza iraunkorra defendatzen dugunok laguntza horiek nekazariari unean uneko erreferentziazko errenta osatzeko eta sozial eta ingurumen arloetan iraunkortasuna sustatzeko izan beharko luketela uste dugu. Kostu eta prezioen arteko desorekak orekatzen lagundu beharko lukete".



Agurne eta Maitane Arbilla
esne behiak dituzte Iraizotzen

P Lerroa

Gure herrialdean bunker anitz ditugu; nonahi ageri dira, bertan sartu gara, bertan jostatu gara, batzuk deseginak daude, bertze batzuk zaharberrituta... Historiaren lekuko dira guztiak; batzuek ahanzi nahiko luketen historia. Baina egia aitortzea eta justizia egitea beharrezkoa da.

Aipatu berri ditugun bunker horiek P Lerroa izenekoaren parte dira, hau da, Pirinioetako mendikatean zehar egindako sare defentsiboa izan zenaren parte. Nahiz eta lehenagotik gune batzuk eraiki izan ziren, 1944-1948. urteen bitartean altxarazi zuen Francok, helburu sinesgaitza oinarri: maki, nazi edo aliatuen etorreraz babestea. 8.000 edo 10.000 bunkerrez osatutako babes-sarea Pirinioetan zehar sakabanatzen zen, Mediterraneotik Kantauri itsasoraino (500 km-ko hedaduraz). Dena dela, hesi honen antzekoak bertze hainbat herrialdetan ere eraiki ziren: Frantzia, adibidez.

Guda Zibilaren ondoren, mugaren beste aldean desterratu anitz asentatu zen. Okzitaniako Tolosan erbestealdiko gobernua osatu zuten, Frantziako gobernuaren babesa lortu nahian, Francori aurre egin ahal izateko eta Espainiako gobernua berriz konkistatzeko. Egindako saiakerak antzuak izan ziren, ordea, Frantziak eta aliatuek ez baitzuten babesik eman; orduan, gerrillen guda hasi zen (makiena, alegia). 1946an, herrialde batzuek NBERi eskatu zioten Espainiarekiko gaitzespen irmoa adierazteko, eraikin horiek egiteagatik. Baina, saiakera horrek ere ez zuen fruiturik eman.



▲ Orainbetasaroiko bunkerra, Etxalar.

Lerroa zenbait gunetan banatzen zen, eta kokapen bakoitzean, erresistentziarako azpi-guneak izaten ziren. Katalunian, 100 inguru eta Euskal Herrian 56 bat gune izan ziren. Armategiari dagokionez, honako hauek edukitzen zituzten: fusil-metrailetak, tankearen aurkako kanoiak, infanteria-kanoiak, airearen aurkako metraileta eta morteroak. Ohikoak ziren gune batean ikuskatzeko eta agintzeko kokalekuak, artilleri-guneak, zeru idekian ziren kokapenak eta babesteko guneak ere izatea. Proiektuaren barrenean, establimendu horietaz gain, suntsitzeko ekimenak ere zehazten ziren, balizko etsaien etorrerari aurre egiteko protokoloak ere ezarrita agertzen baitziren. Alanbre-hesiaz gain, pertsonen kontrako minez inguratuak ziren.

1980. urtean utzi zioten P Lerroa modu militarrean erabiltzeari, hamarkada horretan, Espainia NATOn eta EBN sartu baitzen. Gaur egun, historiaren lekuko dira, eta hainbat lekutan, turismorako erakargarri bihurtu dira (bisita gidatuak eta ibilbide antolatuak burutzen dira, eta bertze kasu batzuetan, mendizale eta erromesentzako aterpeak dira).

Hiztegia

Zaharberritu: restaurar

Mendikate: cordillera

Sinesgaitz: increíble, imposible de creer

Sakabanatu: diseminar

Hedadura: superficie

Erbestea: exilio (Erbestealdeko gobernua: gobierno en el exilio)

Antzu: estéril (intentos estériles)

Gaitzespen irmoa: condena/reprobación contundente

Kokapen: ubicación

Establimendu: asentamiento



iritzia



Angel Erro

Gerrari ez?

2022ko otsailak 27

Gerrari ezetz diotsoten pertsonak eta pankartak agertzen hasi dira, lehen tankeekin, lehen erasoekin batera. Mundu guztia ados egoteko moduko leloa da «gerrari ez» hura? Ala kasuan kasukoa da? Denok berdina esaten dugu hura aldarrikatuta? Toki guztietan du balio bera? Errusiako hiriburuan atxilotua izateko arrisku errealarari aurre egiten dion manifestari batek eta nik gauza bera esaten dugu «gerrari ez» diogunean? Eta garai guztietan ere gauza bera da? 2003ko «gerrari ez» eta hemeretzi urte beranduagokoa baliokideak dira? Etxeko politika egiteko modua da?

Ezkerreko(ago) egiten gaitu gatazka belikoen kontrako jarrerak (baldintzarik gabeak)? Zer esaten ari gara «gerrari ez» diogunean? Errusiak eraso gelditzeko, ala Ukrainak amore emateko? Ala nork bere estatuari soldaduak ez bidaltzeko? Saudi Arabiak Yemenen kontra daraman zortzi urteko erasoaldiak ez du gure paparreko pegatinarik merezi? Gerra harentzako armak sartzea ahalbidetzen duten alderdien egoitzen aurrean manifestazioak ez dira oso jendetsuak, halakorik baldin badago.

Gure gaurko «gerrari ez» batek ez du NATOren hitz falta, europar agintarien koldarkeria diplomatikoa, errazten? Zerbait konpontzen du nork bere burua lasaitzeaz gain? Gerrak bezainbat galdera.

Anueko umeendako polikirolak, arrakasta izugarria

Astero bi egunetan egiten dute sei eta hamabi urte bitarteko umeek polikirola, Olagueko frontoian, eta Isabel Oiartzun Aritzuko herritarrek esan zigunez, izugarrizko arrakastarekin.

Lehenengo aldiz antolatu dute aurten eta hogeitau haur baino gehiago biltzen dira, bi begiraleren zaintzapean: "Haurrak oso pozik doaz, aurreko egunean ikusi nituen eta kotxetik atera orduko korrika batean joaten ziren frontoira. Neskak eta mutilak doaz, nahasita, eta hori oso garrantzitsua da, orain arte 7-8 urte betetzerakoan kirol ezberdinetan banatzen zirela baitzirudien".

Oiartzunek azpimarratu duenez, gainera, Burutain kenduta, gainontzeko herrietako umeak daude: "Oso positiboa da bailara eta herri ezberdinetakoak biltzea, gure bailara sakabanatu honetan oso garrantzitsua baita haien artean harremanak egitea".



Umeak sokatiran jolasten, Zangotzan ▲

Anuen beste albiste on bat ere badago. Izan ere, martxoaren 1etik aurrera, odol analisien zerbitzua berreskuratu dute Olagueko Osasun Etxean. Isabel Oiartzun: "Osasun etxea berriro dute eta hori oso ongi dago baina izurritearekin zerbitzu garrantzitsu bat galdu genuen, odol analisiena. Larraintzarrera joan behar ginen eta badakizue gehien bat adineko jendeak erabiltzen duen zerbitzu bat dela". Bada, pozez eman zigun Oiartzunek martxoaren 1etik aurrera zerbitzua Olaguera itzuliko denaren albiste.



Lantzen hiru etxe ari dira konpontzen

Hiru eraikin ari dira konpontzen Lantzen aldi berean, hiruak etxebizitzak egiteko. Pozez agertu zen Esan Erran irratian Luis Mariñelarena herritarra. Ez dira etxe berriak, baizik eta herriko betiko hiru etxe, etxebizitza gisa erabiltzeko zaharberritzen ari direnak. Uhaldetxea (herrian Gualdetxa esaten diote), Loprenia eta Domartiñena (edo casa del cerero) dira. Herriko jendearenak edo herritik kanpora joandakoenak dira hiruak, eta osorik edo zati batean lanak egiten ari dira. Kasu batzuetan obrarekin amaitu eta jarraian bizitzen jartzeko izanen da eta beste kasu batzuetan tarteka herrira joateko. Dena den, albiste oso ona Mariñelarenaren iritziz: "Hori bizitasuna da herriarendako. Zenbat aldiz, ingurura begiratu eta esaten duzu, 'jo, zenbat etxe hutsik edo biztanle bakar batekin...'. Bada, oraingoendako eta hurrengoendako aukera bat da hori".



Lantz

Izarpen gustu guztientzako aukerak ditugu EGUNERO!!!

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA



IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

Hamarretakoak: Menudikoak, Txerri hankak, Tripakiak, Ajoarriero, Arrautzak...

Bermuta: Etorri gure pintxoz beteriko barraz gozatzeraz eta dastatu gure etxeko frito berriak.

Eguneko Menua: Etxeko janaria egunero.



Merenduak: Txokolate beroa txurroekin, etxeko tartak, bizkotxoak eta pintxoak.

Ostegunero: Pintxo-pote giro oberenean.

Asteburuak:

Asteburuko Menu berezia km·0 eta karta.





Korrika kulturala, 22. ediziorako berotzen

Geroz eta hurbilago dugu Korrika, eta ohitura den bezala, aurretik, martxoan, korrika kulturala izanen dugu, baita gure eskualdean ere. Bertso saioak, kontzertuak, ipuin-kontalariak, tailerrak, magia ikuskizunak eta zirkoa, denetarik izanen dugu! Denetarik eta eskualdeko hainbat eta hainbat herritan, Odietatik hasi eta Basaburura, Ultzaman eta Imotzen, gutxienez. Ondoan dituzue Pulunpe itxi arte konfirmatutako hitzordu guztiak.

Martxoaren 31tik apirilaren 10era arte izanen da 22. korrika, Amurriotik hasi eta Donostian bukatuz. Gure eskualdea apirilaren 5ean zeharkatuko du korrikak, goizeko 10:05ean Arraiztik sartuko baita eta Alkotz, Iraizotz, Larraintzar eta Auza pasatu ondoren, Basaburuan sartu, Gartzarondik pasa eta Jauntsarats igaroko du 11:49an. Beruete zeharkatu eta eskualdea atzean utziko du Korrikak gero, Larraun aldera joz.



Martxoak 25, ostirala,

20:00etan Anotzibarko elkarteak:
BERTSO-KATA.

Bertso saioa eta sagardo kata
AITOR MENDILUZE eta UNAI AGIRRE bertsolariekin.

Martxoak 26, larunbata,

12:00etan Aizarozko ostatuan:
BERTSO-BERMUTA.

MINTXO ASTIZ, IDOIA GRANIZO, ENDIKA LEGARRA eta
eskualdeko beste bertsolari batekin.

Gai jartzailea: Oier Legarra.

Martxoak 27, igandea,

12:30ean Etxalekuko plazan:
DUO OTXO.

(euria eginen balu Latasako frontoian).

Martxoak 27, igandea,

17:00etan Gartzarongo elkarteak:

DANI MARTIRENA eta ANA IBAÑEZen "AMONARENEAN
KEA" haurrendako liburu irudidunaren aurkezpena
(Ipuin kontalaria eta tailerra) Ondoren, txokolatada.

Martxoak 30, asteazkena,

Larraintzarko zentro zibikoan :

"LABURBIRA 2022", euskarazko film laburren
proiektzioa, eta zine zuzendari batekin solasalditxoa.

Apirilak 1, ostiral goizean,

Basaburuko Oihanzabal eskolan:

HODEI MAGOA.

Apirilak 3, igandea,

17:30ean Erason (Zaparen etxola):

Umeendako "OKER" filmaren proiektzioa.

Data eta lekua konfirmatu gabe oraindik:

Iñaki Larrayoz "Larra Bideak" Larraintzarko musikari
eta kantariaren emankizuna Ultzaman.

Umeendako "zirkoloretsu" ikuskizuna Ultzaman.



Hainbat idazlerekin solasteko aukera, Literatur Geraldietan

Nafarroa ipar-mendebaldeko mankomunitateek eta udalek antolatua, literatur geraldia izanen dira 12 saiotan, otsailetik urrira. Hainbat motatakoak izanen dira: egileekin literatura solasaldiak, lantegiak eta irakurraldi musikatuak.

Hain zuzen ere, Etxalekun eman zitzaien hasiera, otsailaren 19an. Aiora Jaka itzultzailearekin solas egiteko aukera izan zen Imozko udaletxean, berak itzulitako Nirliit liburuaren inguruan. Berari egindako elkarrizketa duzue Pulunpe honetan, 22. orrialdean.

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea, herritarren euskarazko kultur kontsumoa indartzea, euskal liburugintza indartzea, liburutegi publikoen erabilera bultzatzea eta esperientzia literarioak konpartitzea, horiek dira egitasmoaren helburuak.

Gure eskualdean apirilaren 20an dugu hurrengo hitzordua, Larraintzarko Bentan, 18:00etan. Orduan, Irati Goikoetxea Herriak ez du barkatuko bere lehenengo eleberriaz arituko da. ETak aita hil zion Oihanari duela hogeita bi urte, berak hemeretzi zeuzkala. Zauria bizirik du oraindik, baina ez du horretaz inorekin hitz egiten;

bere seme-alabei ere ez die ezer argirik kontatu, nahiz eta barruan sumatu on egingo liekeela denei. Ezustean, biktima ezberdinen lekukotasunak jasotzen dabilen antropologo baten deia jasoko du, ea berarekin bildu nahi duen.

Nafarroako iparraldeko udalek eta mankomunitateek antolatu dute.

LITERATURA GERALDIA 2022

SOLASALDIAK

Otsailak 19 | 11:00 | ETKALEKUI (Udaletxea)
Aiora Jaka (Nirliit)

Martxoak 10 | 18:00 | BURTZUN (Pizkuar)
Aiora Jaka (Nirliit)

Martxoak 26 | 11:00 | LESAKA (Auzoa)
Aiora Jaka (Nirliit)

Apirilak 20 | 18:00 | LARRAINTZAR (Bentan)
Irati Goikoetxea (Herriak ez du barkatuko)

Apirilak 21 | 18:00 | BURTZUN (Pizkuar)
Nerea Loliola (Epizentroa)

Apirilak 22 | 18:00 | BERA (L. Iruñegia)
Mikel Antza (Arroz urez)

Apirilak 26 | 17:30 | ARANTZA (L. Iruñegia)
Nerea Loliola (Epizentroa)

Apirilak 28 | 18:30 | LEXUMBERRI (L. Iruñegia)
Irati Goikoetxea (Herriak ez du barkatuko)

Apirilak 28 | 19:00 | ERATZU (L. Iruñegia)
Aiora Jaka (Nirliit)

LANTEGIAK

Ibon Egalea (Nola iruzkindu liburu bat?)

Apirilak 20 | 18:30 | LEITZA (L. Iruñegia)
Urriak 19 | 18:30 | ELIZONDO (Nirliit)

IRAKURRALDI MUSIKATUA

Apirilak 22 | 19:00 | LESAKA (Auzoa) / Tardak 18:00
Aritz Galarraga eta Ibon RG (Gogoa dut)

Literatur geraldia



**TXAKUR
JANARIA**

CARLOS 660781595
Pili 650206699





EHko mus txapelketako kanporaketak, Martxoaren 13ra bitartean

Iazko txapelketaren finala oraindik jokatzeko badago ere, 2022ko Euskal Herriko Mus Txapelketa martxan da dagoeneko. Nafarroako finala martxoaren 26an izanen da Iruñean eta Euskal Herrikoa apirilaren 9an, Baigorriin.

Bitartean, martxoaren 13ra arte, herriz herrikako kanporaketak izanen dira. Gure eskualdean lehen a lgoan izan zen otsailaren 12an. Bost bikotek eman zuten izena eta txapeldunak Aingeru Etaio eta Joanes Oskotz izan ziren. Hurrengo asteburuan Jauntsaratsen eta Iraizotzen izan ziren. Apeztegiberrin sei bikote aritu ziren eta Josu Beaumont eta Peio Ganboa izan ziren irabazleak. Iraizotzen lau bikotek jokatu eta Unai Larraiotz eta Imanol Iragi izan ziren sailkatuak. Atetzen ere Aroztegiko Izarpe Kanpinean izan dute dagoeneko kanporaketa eta bi bikote sailkatu ziren: Patxi Etxeberriak eta Eneko Berasainek osatzen dutena, garaileak izan baitziren; eta, bigarren sailkatu ziren Juan Ignacio eta Asier Larraiotz. Kanpinean

10 bikote aritu ziren. Latasan, otsailaren 26an izan zen eta garaileak Joan Miguel Loidi eta Joxe Mari Urbietak, 9 bikoteren artean.

Euskal Herriko mus txapelketa hitzordu handia da. Baina musa aipatuta, Izarpe Kanpineko mus txapelketa ere albiste dugu. Hirugarren edizioa jokatu da otsailaren 25etik martxoaren 25a bitartean.

Duela lau urte hasi ziren antolatzen, kanpineko lehenengo urtebetetzea ospatu baino lehen, baina, pasa den urtean ezin izan zuten egin, izurritearen hedapenarengatik. Orain, txapelketari berriz ekitea erabaki dute, inguruko jendeak eskatuta. Izan ere, arrakasta handia izan du aurreko urteetan, hoguei bikotek baino gehiago izena ematen ohi zuten, eta izugarritzko giroa sortzen zen kanpinean, bertako bezeroak eta bailarako herritarrak batuz, kanpineko Marta Gastonek esan digunez: "kanpineko jendea, bailarako jendea; eta Ultzama eta Odietako jendea ere badator".





Batzuetan ahaztu egiten gara gure eguneroko errutinaren parte diren gauza sinpleek duten balioaz, eta, besteak beste, ziurtzat jotzen dugu elikadura eskuragarri eta askotariko bat izateko aukera, haren jatorria, nutrizio-balioa, ingurunean duen eragina edo haren ekoizpenak dakarren ahalegina eta kostua zailantzan jarri gabe.

Azken urteetan gogorarazi digute lanbide asko ezinbestekoak direla gure bizimailari eutsi ahal izateko, lehen sektorekoak esaterako. Profesional horiei esker jaten dugu egunero; eta, hala ere, gizarteak ez du balioan jartzen pertsona horien dedikazio eta egiten duten ahalegina guk elikagai aberats eta osasungarriak izan ditzagun.

Cederna Garalur Elkarteak, lehen sektoreari laguntzeko eta balioa emateko helburuarekin, Nafarroako Gobernuak eta Europako LGENF funtsek finantzaturako proiektu bat abiarazi du 2014-2020 Landa Garapenerako Programaren barruan.

Proiektuak bi ekintza-ildo nagusi ditu. Batetik, tokiko produktuen erosketa bultzatzeko komunikazio-kanpaina bat antolatzea. Eta bestetik, lehen sektoreko langileei zuzendutako aholkuntza-aholkularitza eskaintzea, beren produktuen balioa eta landa-ingurunean duten eragina eraginkortasunez komunikatzen ikas dezaten.

Bertakoa sustapenerako giltzarri

Zer egin genezake hainbeste ematen digun sektoreari gure babesa adierazteko?

Gure herrietan tokiko produktuak kontsumitzen has gaitezke. Horretarako, Cederna Garalurrek identifikazio-marka esanguratsu bat sortu du, "Etxean etxekoa/En casa lo de casa" lelopean tokiko produktuak denda eta tabernetan bilatzera eta eroatera gonbidatzen gaituena. Gure etxearen parte izaten jarrai dezaten. Etxean etxekoa izaten jarrai dezagun.

Ahalduntze-aholkularitza

Lehen sektorean lan egiten dutenei zuzendutako doako aholkularitza-saioak eskainiko dira, komunikazio-estrategia bat garatzeko asmoz. Komunikazio-estrategia horren bitartez, produktuen balioa ez ezik, lehen sektoreko lanaren garrantzia ere helarazi nahi zaio gizarteari, lan duina, profesionalizatua eta gure herrietako bizitzaren dinamizatzailerak baita.

Errebalorizazioa, lehen sektoreko langileak bultzatzeko metodo gisa



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua





Basaburuko

industrigunea

Abian da Udabe eta Beramendi artean gune berria eraikitze prozesua

Duela 40 urte baino lehenagotik datorren ideia da Basaburuan industrigunea eraikitzearena, baina gaur arte ideia soil zen hori, azkenean, errealitate bihurtzeko pausoak ematen hasia da Udala. Nafarroako Gobernuak proiektua onartu du honezkero, eta udazkenean obrekin hasia aurreikusten dute bultzatzaileek. Udabe eta Beramendi artean, Dorrea gaztandegiaren ondoko lursail batean kokatuko da gune ekonomikoa, eta Udaletik azpimarratzen dutenez, 'gure neurri eta beharretara egokitutakoa' izanen da.

Despopulazio prozesuak bizi dituzten eskualdeetan ohiko aldarrikapena da bertan lan eta bizi ahal izatea. Bada, aldarrikapen eta behar horri tiraka berrartu zuen Basaburuko egungo udal taldeak industrialdea eraikitze asmoa. "Duela 40 bat urtetik datorren ideia da, garai hartan fabriketara joateko joera handia hasi baitzen eta hemen bertan industria garatzeari aukera eman beharra zitzaiola ikusten baitzen", azaldu ditu egitasmoaren hastapenak Esther Lakasta Basaburuko alkateak.

Izan ere, 70. hamarkadaren bueltan lehen sektorean eta bereziki abeltzaintzan ziharduen jende askok inguruko fabriketara jo zuen lan bila, eta horietako askok bizitzeko tokia ere kanpoan bilatu zuten. Geroztik gauzak asko aldatu diren arren, zoritxarrez, oraindik gazte asko

kanpora jo behar izaten dute lan bila, eta horri buelta emateko asmoz eta herriak bizirik mantentzeko apustua eginez erabaki du Udalak orain proiektua martxan jartzea.

Poligonoa, Udabe eta Beramendi artean

Industrigunea eraikitze behar den lehen gauza lurra da, eta hori eskuratzeko aukera duela 30 bat urte izan zuen Udalak. "Udabe eta Beramendiko Kontzejuekin adostu zen orduan, Udalak Beramendiko kaleak konpontzearen truk, haiek industria gunerako eremu bat uztea", dio Lakastak. Hasiera batean beste toki batean izan behar zuen eremu hark, baina azken urteetan egungo tokira lekualdatu zen egitasmoa, Dorrea gaztandegiaren ondora. Dena dela, hasiera batean azpiegitura aldetik eskakizun handiak egin zituen Nafarroako

“Gure neurri eta beharretara egokitutako industrigune txikia izanen da”

Gobernuak, eta horregatik, atzera bota zen garai hartako proiektua. "Gorabehera handiak izan ziren, kostu ikaragarria ekartzen zuen biribilgune bat egitea eskatzen baitzuten, eta azken pausoan paralizatu egin zen".

2015ean, Udal talde berria sartzearekin batera, berriz ere industrigunearen inguruko kezka eta beharra atera zen, eta biribilgunearen kontuari buelta bat eman eta beste irtenbide bat bilatu zuten. "Ez genuen nahi gero hutsik egonen zen poligono erraldoi bat, gure neurri eta beharretara egindako industrigune txikiago bat baizik", dio alkateak. Azkenean, azpiegitura aldetik hainbesteko inbertsiorik eskatzen ez duen proiektua aurkeztu, eta lurra birkalifikatu ahal izateko Nafarroako Gobernuaren baieztoko txostena lortu dute.



'Basaburuan lan eta bizi', ideia horri tiraka jarri du martxan proiektua Udalak



Zorionak Zorionak !



Zorionak Santi!



Zorionak Xubin eta gonka!



Zorionak Mera!



Zorionak Iher!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Abizenak euskal grafiaz paratzeko kanpaina

Irazoqui, Ylarregui, Goicoechea, Echenique, Echeverria... Zure abizena horietako bat da? Zenbat aldiz pentsatu duzu abizena euskaratu beharko zenukeela?

Eskualdeko euskara zerbitzuek, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin (UEMA) elkarlanean, abizenak euskal grafiarekin paratzeko kanpaina abian jarri dute, **Euskaraz naiz** leloarekin, eta herritarrak animatzen dituzte beren abizenak zuzentzeko urratsa egin dezaten.

Bereziki dei egiten diete guraso izateko bidean direnei edota 18 urtetik beheko seme-alabak dituztenei. Izan ere, helduek abizenak euskal grafiarekin jartzeko tramitea eginez gero, seme-alabei automatikoki abizena behar bezala erregistratua geldituko zaie.

Zer egin behar da abizenak euskal grafiaz paratzeko?

Hiru urrats erraz hauek eman behar dira:

1. Joan bizi zaren herriko Erregistro Zibil edo Bake Epaitegira eta esan abizenak euskaraz jarri nahi dituzula.

2. Eraman agiri hauek:

- NAN originala eta haren fotokopia:
 - Gurasoen NANaren fotokopia, adinez nagusia ez bazara.
 - Seme-alaben NANaren fotokopia, 16 urtetik gorako seme-alabak badituzu.

• Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria: Bizi zaren herri berean inskribatuta ez bazaude.

• Errola-agiria. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere bai.

• Familia-liburua eta haren fotokopia: Ezkonduta bazaude edo/eta seme-alabarik baduzu.

3. Erregistro Zibilean edo Bake Epaitegian emango dizuten eskaera orria zure datuekin bete.

Tramitazioa bukatu ondotik NANA eta gainerako dokumentazioa berritzen ahalko duzu. Gogoan izan izena aldatzeko egin beharreko urratsak bertze batzuk direla.

Nola idazten da zure abizena euskaraz?

Normalean abizena aldatzeko eskaera egiten den bake epaitegiko edo erregistrozibileko arduradunak Euskaltzaindiak onartutako zerrendan egingen du kontsulta eta horko irizpideei jarraituko die. Baina ez da beti horrela: adibidez, Euskaltzaindiaren zerrendan **Muxika** agertzen da baina zenbait kasutan forma desberdinak onartu izan dira (**Muxika, Mujika...**). Zalantza izanez gero, norberak Euskaltzaindian bertan egin dezake kontsulta. Webgunean sartuz gero (euskaltzaindia.eus), hizkuntza baliabideen atalean klikatu eta deituen atalera jo behar da.





Otordu osasuntsua eta egiteko erraza erakutsi digu Laia Llopek

Udazkenean egiteko errezeta bikaina, neguan ere gozatzekoa, noski. Osagai gutxi behar ditu eta erraza da prestatzen, azalorea eta espeziak dira garrantzitsuena. Fruitu lehorrek eta sesamo saltsa batek lagunduta, propietate asko ditu osasunerako oso onuragarriak. Fibra ugari du, esate baterako, minbizia prebentziorako oso ona. Laia Llopek irakatsi digu nola prestatu.

OSAGIAK

Azalorea

Kurkuma

Piper beltza

Gatza

Olio

**Saltsa egiteko: Tahina, ezti
eta esnea**

Intxaurrak eta granada

• PAUSOAK:

1) Azalorea garbitu eta laberako prestatu. Hostoak eta beheko partea, sustraien zati gogorra, kendu. Laiari hosto batzuk uztea gustatzen zaio. Finenak direnak edo itsatsiagoak dauden horiek, adibidez, gero kurruskari geratzen direlako. Bandeja batean prestatuko dugu labera sartzeko. Azalorea garbitu ondoren, dagoen bezala, osorik, olio zabalduko diogu gainetik, dena ongi bustiz. Gero, gatz, eta kurkuma ere bota. Kurkuma oso ona da hanturazkoa sendatzeko. Baina nahi den espezia botatzen ahal zaio, curryarekin ere oso ona geratzen da. Kurkuma botatzen badiogu, piper beltza ere botako diogu, kurkumaren propietateak indartzen laguntzen duelako. Gainetik olio gehixeago bota, eta labera sartuko dugu. 180 gradutara, gutxienez, ordu bat edukiko dugu; tamainaren arabera, ordu eta erdi ere beharko

du. Beste aukera bat aurretik egostea eta labean bukatzea da. Labana sartu eta biguna dagoenean, egina dagoela esan nahi du.

2) Saltsa: Azalorea egiten den bitartean, saltsa prestatzeko aprobetxatuko dugu. Hartu kristalezko pote bat eta tahina koilarakada batzuk bota. Tahina sesamo gurina da, eta sesamoak kaltzio asko du. Gero, norbere gustura ezti botako diogu. Laiak hiru koilarakada tahin eta ezti koilarakada bat bota du. Nahiko lodia geratzen denez, esnea ere botako diogu, Laiak esne begetala gomendatzen du (olo esnea, adibidez, baina almendra esnea ere ongi doakio). Pittin bat botako diogu, arintzeko eta azalorearen gainean zabaltzeko moduan izateko. Gatz pixka bat ere gehitu diezaiokegu.

3) Azaloreari egiteko pixka bat falta zaionean, intxaur batzuk botako ditugu labeko bandejan, intxaurrak ere pixka bat erretzeko. Ondoren, azalorea labetik atera, plater batean jarri eta saltsa, intxaur txikituak eta granada botako diogu gainetik. Intxaurrak aukeratu ditugu hemengoak direlako, baina edozein fruitu lehor doakio ongi. Omega asko dute eta, horregatik, emakumeondako oso onak dira, baita hipertentsioa edo kolesterola dutenendako. Granadaren ordez, masustak edo mahatsak jarri daitezke. Guztiek, propietate antioxidatzaile ugari dituzte.



▲ Azalore errea, kurkuma, intxaurrak eta granadarekin



▲ Labean sartu aurretik, olioan ongi bustiko dugu azalorea eta gatz eta kurkuma botako diogu



Notarioen etxeak

XVIII. mendean (II)

Beuntzako notarioak (Bastallenea)

Beuntzan ere izan ziren notarioak XVIII. mendean, **Bastagillenean** (Bastallenean). Ez dakit zergatik izanen zen, baina Bastalleneko notarioek **Alkotzenea** deitzen zioten etxeari eta herritarren artean **Eskirauarena** ere ibili izan da. Beuntzako alkoztarrei Bastagillenea ez zitzaien dirudienez aski duina iduritzen edo.

Hiru eskirau izan ziren. Hona hemen, banan-banan:

Pascual Alkotz edo Pascual Martinez de Alkotz (1679-1722)

Juan Francisco Alkotz Izko (1711-1746) aurrekoaren semea.

Miguel Tomas Alkotz Escolar (1750-1757) lehenbizikoaren biloba eta aurrekoaren semea.

Aurrenekoa izan zen sokaren hasiera, baina nik uste, bigarrena izan zela famatuena. Aberatsena bederen bai.

Juan Franciscok, Etxauriko **Brigantenekoa (1)** zuen andrea, etxalde handikoa, Ana Joaquina



Etxearen paretako armarría. ▲



Fig. 133. BEUNZA, Escudo.

Armarríaren marrazkia, "Catálogo Monum. de Navarratik" hartua. ▲



Beuntzako herri ederra; ezkerrean, goiti, Eliza. Herriaren erdi-erdian Bastallenea, denen gainetik. ▲



Beuntzako notarioen historiaz gehiago jakin nahi duenak audioz entzun dezake (Amezti.eus-en jarri dugu)



▲ Jesusen Bihotza, XX. mendearen hasieran jarria, ate gainean. Alpuja euskaraz.

Bastallenea

Beuntzarako bidean, herrira hurbiltzean, hor ageriko zaizu etxe multzoa, goiti ezkerrera, denen gainetik, herriko Eliza. Eta etxe guzien erdian, nabarmen, handi eta garai, **Bastallenea**.

Hala ere, goitiko auzoa ez da ageri. Horretarako elizaraino joan beharko duzu, eta zoko batean bezala duzu, bere dorretxe polit batekin.

Bastagillenea edo **Bastallenea** esaten duten bezala, ez dugu nolanahiko etxea, ez horixe! Lau estaietakoa da, denak ere nahiko altuak; eta zer esan sabaiaz? Gainerakoak baino garaia goa.

Noiz egin ote zuten etxe hau? Eskirauak, dirudienek, ez zuten harrian noiz eta nork egin zuen idazteko ohiturarik. Gure alderdian hori dugu sumatu behintzat. XVIII.

mendean egina dela ez daiteke uka.

Hori bai, bere armarrria hor jarri zuen handixkien eran, hijosdalgo edo kapare gisan, fatxada edo etxaurre printzipalaren bigarren estaiaren erdiko leihoaren gainean.

Eta hor du ateko giltzarrian, XX mende hasierako Jesusen Bihotzaren debozio hedatze handiaren seinale, burdinazko ezkutua euskaraz jarria: NI NAIZ ERREGUE/ JAUN ETA JABE

(1) **Brigantenea** edo **Brigantenekoa**. **Dirudienek Birantenea** ere deitzen zioten, nahiz izen zaharrena **Dorrekoa izan, dorrea izandakoa baitzen**.

OHARRA: Zerbait gehiago jakin nahi duenak, Beuntza eta Bastalleneaz, entzun beza audioa amezti.eus-en



Txurdan
Patxi Oskotz

Hiztegia

Mendea edo gizaldia: ehun urteko aldia

Eskiraua=escribano edo Notarioa.

Biloba: nieto

Estaia: piso

Garaia: alto

Armarria: escudo

Handixkiak: Handi ustekoak eta besteak baino gehiago zezaketenak.

Kaparea: hidalgo

Giltzarria: Harrizko arku batean erdiko harria. Batzuetan hizki, marrazki edo beste zerbaitez apaindua izaten da.



▲ Bastagillenea, beheko atea aurrealdetik eta, zeharretik, lehen pisurako harrizko eskailerarekin. Etxe handi bezain dotorea.



Nirliit, inuit herrixka baten erretratu

Juliana Léveillé-Trudelen Nirliit eleberria euskaratu du Aiora Jaka itzultzaileak. Quebecoko iparraldeko inuit herrixka batean bizi izan zen Jaka urtebetez, han ezagutu zuen eleberriaren idazlea, eta irakurritakoarekin hain sentitu zen identifikatuta, non euskaratzea erabaki baitzuen. Eleberriaz eta inuitei buruz solas egiteko aukera izan zuten hainbat herritarrek Etxalekun, Literatur geraldiei hasiera eman zien saioan.

Zer kontatzen digu Juliana Léveillé-Trudelek liburu honetan?

Liburua bitan banatuta dago, eta atal oso desberdinak direla esango nuke. Lehenengoan, Quebec iparraldeko Salluit herri inuitan gertatzen da istorioa, eta bertako erretratu izango litzateke. Inuiten errealtatea kontatzen digu hainbat pertsonaiaren istorioen bidez, eta, zati honetan, ez dago hari jakin bat, deskribapen eta anekdota txikiak biltzen dira. Negutik desagertuta dago Eva, badirudi maitaleren batek hil duela eta itsasora bota duela, eta protagonista desagertutako lagun inuit horri zuzentzen zaio bigarren pertsonan. Berak egiten dituen gogoetak hango errealtatearen deskribapenarekin nahasten ditu. Bigarren zatia istorio oso bat da, pertsonaia konkritu batzuekin hasi, garatu eta bukatzen dena.

Zu ere Quebec iparraldean bizi izan zinen eta Léveillé bera ezagutzeko aukera izan zenuen. Ba al dakizu zerk bultzatu zuen bera Nirliit idaztera?

Quebecen bizi izana nintzen eta haien kultura, hizkuntza eta errealtatea ezagutzeko gogoia nuen. Horrela joan nintzen inuit herrixka batera. Hango supermerkatu batean, lehenengo, eta, gero, eskolan egiten nuen lan umeendako aisialdi jarduerak antolatzen. Juliana nire koordinatzailea zen, horrela ezagutu nuen. Liburuko protagonista bezala han pasatzen zituen udak, inuiten artean, jardunaldiak antolatzen; bestela, uda luzeegia egiten zaie, ez baitute ezer egiteko. Orduan, Julianak bost urtez han ikusi zuen errealtatea kontatzen du: zoragarria, zirraragarria eta hain desberdina alde batetik, baina bestetik, hain

tristeia eta hain gordina, gauza oso larriak gertatzen direlako eta era nahiko baztertuan bizi direlako gaur egun, baliabide oso gutxiarekin. Beraz, batetik, haien bizimoduarekiko, kulturarekiko, tradizioarekiko eta historiarekiko lilura sentitzen zuen, eta bestetik, gaur egun zein egoera penagarrian dauden ikusten zuen, mendebaldeko zibilizazio txuritik begiratuta gainera. Sortzen zaizkion kontraesan horiek nolabait kontatu nahi zituen.

Juliana-
Leveillé-
Trudel



Nirliit



JULIANA
LÉVEILLÉ-TRUDEL
ITZULTZAILA: AIORA JAKA

Aiora Jakak itzulitako eleberriaren azala



Aiora Jaka Kuujuaapik inuit herrixkan



Nolakoa da haien egunerokoa?

Oso-oso iparraldean bizi dira. Quebec Kanadako probintzia bat da, azaleraz oso handia. Kanadako jende gehiena hegoaldeko zerrendan bizi da, Quebec, Montreal eta San Lorenzo ibaitik gertu, Estatu Batuetako mugan. Hortik gora kilometroak eta kilometroak daude eta hor bizi dira, ez inuitak bakarrik, herri indigena asko daude. Inuitak dira iparraldeenera bizi direnak, hamalau herrixka inuit dira eta batetik bestera 200 eta 400 kilometro bitartean izanen dira. Hau da, guztiz isolatuta daude. Bizimodu nahiko nomada izan dute eta haien artean bazuten harremana, baina sedentarizatzen joan diren heinean, herrixkak sortzen joan dira, eta, gaur egun ez dute bizimodu nomada hori. Hegazkinez batetik bestera bidaiatzeko ohitura badute, familia bisitatzeko, ospitalera joateko eta beste, baina, hala ere, oso isolatuta daude. Herrixkek 200-500 biztanle inguru dituzte, handienak mila inguru izanen ditu. Hango klima hotza da, zuhaitzik ere ez dago, tundra da nagusi. Bizimodu tradizionalak ia ez du biziraupenerako balio, ehizara eta arrantzara doaz baina kultura eta tradizioa mantentzeko, eguneroko elikagaiak hegazkinez datoz hegoaldeetik. Arropak ere bai.

Beraz, zertan egiten du lan jendeak? Bada, bertako eskoletan irakasle, bertako ospitaletan erizain, eta ahal denean. Baina jende askok ez du lanik ezta zereginik, eta gutxi lortzen dute eskola bukatzea eta lan munduan kokatzea. Unibertsitaterik ez da, eta unibertsitatera joatea lortu duena normalean ez da itzultzen. Beraz, arazo asko sortzen dira. Lan gutxi, prestakuntza gutxi eta prestatzeko aukera gutxi... etorkizun nahiko iluna dute. Baina bere alderdi onak ere baditu: batzuek lortzen dute tradizioari eustea, beste batzuek tradizioa berritzea, nolabait uztartzea tradizioa beste tradizio batzuekin. Baina nahiko errealtate gazi gozoa da, bai.

Horregatik da hain kritikoa Juliana Léveillé-Trudel eleberrian, bai hegoaldeetik datorren eragin kaltegarriarekiko eta baita inuitekiko ere?

Bai, bai, egurra banatzen du ezker eskuin! Alde batetik inuitak ez direlako gai lan bati eusteko, goizean altxatzeko eta lanera edo eskolara joateko, garaiz iristeko, edateari uzteko, ez dira gai haurdun ez gelditzeko... alferkeria edo utzikeria hori ikusten du eta esaten du: "Batzuetan zaplazteko bat emateko gogoa pizten didazue ez zaretelako

gai ezer fundamentuz egiteko!". Eta kritika hori egiten du. Baina, gero, berehala esaten du, horren atzean zer dago? Zein dira arrazoiak? Eta ikusten ditu familia bakoitzaren atzean dauden dramak eta tragediak eta kontatzen ditu historian gertatu direnak: kolonizazioa, inposizioa, debekuak... eta nolabait justifikatzen dira haien huts egite horiek guztiak. Beraz, hegoaldeari ere kritika egiten dio, eta, gero, autokritika ere bai: ni txuria naiz, ni kolonizatzaileen taldekoa naiz, hortik nator, orduan oso erraza da kritika hori egitea, baina nik izan dut bokazio bat, prestakuntza bat, aukera batzuk, baliabide batzuk...

Zerk bultzatu zintuen zu Nirliit itzultzera?

Nik Juliana ezagutu nuenean orduan idatzi berria zuen liburua, eta itzultzailea naizela jakin zuenean txantxetan itzuli beharko nuela esaten zidan. Azkenean, liburua eskuratu nuenean eta irakurri nuenean esan nuen, uau! Nik han bizitako esperientziak oso ongi ikusi nituen islatuta, oso ondo kontatua dago, eta ni oso identifikatuta sentitzen nintzen Julianarekin: ni ere kanpotik joan nintzen, abentura bila, jakin-minez, inuitak ze politikak esanez, goazen ikustera nola bizi diren han! Han eman nuen urtebete, eta listo, bueltatu naiz nire mundu erosora. Julianak oso ongi islatzen du kontraesan hori, zuk lagundu nahi dituzu zure intenziorik onenarekin, jakin-minez, izaera ireki batekin, ustez, baina gero ezintasunez zabiltza, ezin lagunduz. Bai, asko gustatu zitzaidan eleberria eta gero hemen jendeak galdetzen zidan ea han nola bizi ziren, eta esan nien, liburu hau irakurri behar duzue eta euskaratuko dizuet horretarako. Saiakera batzuk egin nituen lehenengo kapituluak itzultzeko eta Txalapartari bidali nion proposamena, gustatu zitzairen eta egin nuen.



Ama gazte inuitak, Kanadan, 1995ean. Ansgar Walk



Nahi nuke baikorra izan, baina ...

Berri txarrak

"Berri txarrak" Lekunberriko musika talde handiak jotzez utzi duela mintzatzeraz ez nator gaurkoan. Berriak, txarragoak dira. BERRIA egunkarian irakurtzen nuena da notizia, berri txarra ez, negargarria. Titular batean honela zetorren:

"Ikasleen %98ak irakurketa gaitasun oso urria du" Hemengo ikasleek ari zen, gure ikasleek. Gureak ere %98 horretan ote daude? Edo irakurketa gaitasun ona duten %2 horretan? Eskoletako haurren lehen eginkizuna ez al da irakurtzen ikastea?

Berria edo zaharra ote da kontu hau? Lehen ere horrela gertatzen ote zen? Ezetxean nago ni.

Kontu bihurriagoa

Beste kontu bat ere aipatu nahi nuke. Titular eta notizia hori irakurri baino egun batzuk lehenago Iruñeko karriketan barna, espaloietatik, bizikletaz zihoan gaztetxo talde handi bat ikusi nuen, 12 bat urtekoak edo. Denak erdaraz mintzatuz. Semaforoan topo egin genuen eta gorria jartzeraz zihoanez, denok gelditu beharra izan genuen. Nik San Pedrori ere euskaraz egiten baitiok bere tenorean, gazte hauei motibo handiagotz egin nien.

Euskaldunak ziren. Ez ginen luzaz mintzatu, gehienez ere minutu eta erdi, eta aurrean zetozen hiru bat sartu ziren solasean. Franko poliki ari ziren euskaraz, franko poliki, ezagutzen ditudan beste askorekin konparatuz.

Berri ona edo berri txarra da hau? Gure zenbait herritako haurrak, hauek baino askoz okerrago mintzo dira. Euskaraz egiten diet beti eta horien maila badakit zein den, ohiturik dagoenak berehala antzematen die. Niretako alde batetik berri franko ona zen, Iruñeko haur horiek euskaraz hein batean



Gorka Urbizu ▲

bazekitela esan baitezaket, baina, bestaldetik txarra, gure zenbait herritako haurrak doazen eskolatan zerbait pasatzen baita, hainen nekez eta hainen trakets "euskaraz" ari nahi izaten dutenean nirekin.

Hau ere ez da ba berria ona

Aipatu egunkari berean irakurri dudana berria: Galesek Hego Euskal Herriko hezkuntza ereduaren oinarrituriko sistema ezarriko du: A, B eta G ereduak.

Eta itxura guziaren kontra, hau ere ez da berri ona. Gure sistema kopiatu behar dutela? Hainen ongi atera al zaigu ba? Haur eta gazteek euskara gero eta makalagoa darabiltenean, pobre eta aldrebestuagoa entzuten diegunean, esan al dezakegu bide onetik goazela? Gero eta euskara gutxiago entzuten dugunean, arrakasta saltzen ari gara. Alajaina, Galeseraino eraman dugula harro azaltzeraino!

Gure politikari abertzaleak eta gidari politikoak, dirudienez, produktu aberiatuak saltzen maisu dira, horiek ibili baitira salmenta kontu horretan.

Zerorrek atera behar dituzu kontuak. Eta zuk, irakurle, zer diozu? Esajeratu samarra naizela? Bai? Egiaz? Ba, hona zuretzat nire galderak: aritzen al zara euskaraz zure umeekin? Euskara maila ona al dute? Edo ez al zaizu iruditzen egiagoa dela lehenengo egun batean Ultzamako ama erdi euskaldun batek bere euskara hobetu beharretan dabilenak, esan zidana:

-Nahi nuke gure haurrekin euskaraz mintzatuz ongi ikasi, baina ez didate inoiz egiten. Sekula.

Ez nion deus esan, ez zen telefonoz zerbait azaltzen hasteko tenorea, orduantxe gure buruak ezagutu baikekituen.

Ardo mikatz, ozpindu, ustel bat dabil bazterretan, eta aspaldian oharatuak behar genuke. Baina ez da hala, lo gaude, eta hori da izan dezakegun gaitzerik handiena, heriotzara eramanez gaituena, iratzartzen ez bagara!



Txuridan

Hiztegia

Urtarrila. Hemen beti ilbeltza ibili izan da.

Irakurketa gaitasuna: Capacidad lectora

Espaloia: Acera

Hezkuntza eredu: Modelo educativo

Arrakasta: Éxito

Iratzarri: Hemengo hitza da eta batua ere bai, jakina. Gipuzkoan esnatu esaten dute.



Mendizaletasunak mugitzen duen kirolaria

Duela ia hamar urte hasi zen Saioa Muñoz Bizkai ziaurritzarra mendian lasterka. Gaur egun bere kasa aritzen da, hurbileko mendi bidexketan batez ere, eta txapelketak ere erdi utziak ditu. Kirol horrek mendiaz gozatzeko aukera ematen diolako egiten duela kontatu digu, eta modu naturalean pasa zela oinez ibiltzetik lasterka hastera. Lana ere, mendi lasterketekin lotutako denda batean egiten du, Iruñean

Txikitatik datorkizu kirolerako zaletasuna?

Kirolerakoa baino, mendirakoa, esanen nuke. Tira, nerabea nintzenean kirol gehiago egiten nuen, baina, Ziaurritza etorri ginenean mendira joaten hasi nintzen, bidexkak egiten... beti gustatu zait mendia ongiezagutzea, eta gerora, lagun batekin hasi nintzen mendi martxak egiten. Korrikaren munduan bi lasterkari mota gaudela esaten dut nik: bata atletismotik datorrena, eta bestea, mendizalea dena, gerora hasten dena mendian lasterka. Ni bigarren taldekoa naiz.

Bakarririk aritzen zara lasterka?

Asteazken zehar Erripako Letizia Altunarekin ere aritzen naiz, baina egia da azken urtean ez dugula gehiegi koinziditu. Normalean bakarririk joaten naiz, goizeko 5:30ean umeak jaiki baino lehen edo, eta bestela gauetan... egia esan, bakarririk aritzea ere gustatzen zait, ama langileok ere behar dugu batzuetan bakarririk goatea.

Zergatik aukeratu zenuen kirol hau, zer du berezia zuretzat?

Mendizale amorratua naiz, eta batez ere hemen bertakoa gustatzen zait. Pirinioetara ere joan izan naiz, baina ez gehiegi, nahiago ditut Iratiko basoa, hemengo pagadiak... berdea eta lokatza, hori da gehien gustatzen zaidana. Eta korrika zergatik? Alaba txikiena izan nuenean denbora gutxiago nuen mendira joateko, eta orduan hasi nintzen lasterka.

Ohartu nintzen hanka indartsuak nituela eta erresistentzia ongi moldatzen nintzela. Azken lasterketak 70 kilometro baino gehiagokoak izan dira, eta hurrengo egunetan ongi egoten nintzen. Askok zailagoa egiten zait niri 12 kilometro ziztu bizian egitea, nahiago ditut distantzia luzeak, nire erritmoan.

Zorionez, kirol honetan ere, geroz eta emakume gehiago ikusten da, ezta?

Geroz eta gehiago dago, bai. Ni lasterketetan hasi nintzenean, oso neska gutxi ikusten zen, eta mendian bakarririk entrenatzen ere

bai. Beti mutilekin lagunduta joaten ziren, eta zorionez, hori ere ari da aldatzen, behar baino gutxiago agian, baina bai. Egia da gaur egun oraindik mutilen mundua dela hau, eta norbaite Esaten badiozu gauetan edo goizetan bakarririk ibiltzen zarela entrenatzen esaten dizute: "Ez al dizu beldurrik ematen?", eta hori gizonezkoei ez zaie galdetzen. Baina tira, hori ere poliki-poliki aldatzen ari da, eta polita da neska bat bakarririk entrenatzen ikustea.

Saioa Muñoz, mendi lasterketa batean ▼



Mendi lasterketen munduan, batzuk iparra galtzen ari direnaren sentsazioa ere badu Muñozek. "Gaur egun, lasterketetan nutrizionistarekin eta entrenatzailearekin aritzen da jendea, badaude batzuk ez dakitenak lasterketa bat hiru gel

hartu gabe egiten... nik esaten diet, platanoekin ere egin daiteke, eh?", dio erdi-barrez. Nolabait, giro horretan mendizaletasuna galtzen ari dela sumatzen du, oso 'pro' bilakatu dela eta askok denborei gehiago begiratzen dietela mendiaz gozatzeari baino.



Ultzamako Liburutegia

Zer irakurri edo zer ikusi? Oraingo honetan, liburu eta pelikula pack batzuk proposatzen dizkigu Ultzamako liburutegian. Askotan kontrakoa iruditzen bazaigu ere, badirelako literatura-lanak hobetzen dituzten filmak, edo, gutxienez, liburuaren mailan daudenak.

Filma gustatu zait, baina liburua hobea zen. Nork ez du inoiz esaldi hori esan, eleberri baten egokitzapen zinematografikoa ikusi ondoren? Izan ere, askotan, literatura-lanetan oinarritutako filmek huts egiten digute, irakurketa oso ekintza pertsonala delako, eta bakoitzak bere buruan irudikatzen ditu pertsonaiak, hitz egiten duten ahots-tonua, bertan deskribatzen diren lekuak... Filmetan, aldiz, hori guztia definitua datorkigu, ikusleak gara, eta gure irudimena murriztagoa da edo zinema-zuzendariak egiten duen istorioaren interpretaziora mugatzen da. Beste batzuetan, filmek sintesi-ahalegina egin behar izaten dute, eta eleberrietako pasarte edo pertsonaia asko sakrifikatzen dira pantaila handira eramatean;

are gehiago, zuzendari batzuek eleberrien bertsio libreak egiten dituzte, argumentua aldatzen dute, amaiera aldatzen dute...

Lehen adierazi duguna gorabehera, badira literatura-lanak nabarmen hobetzen dituzten filmak, edo gutxienez horien mailan daudenak. **"Alguien voló sobre el nido del cuco"** Ken Keseyren eleberriak arrakasta zinematografiko handia izan zuen Jack Nicholsonen interpretazioarekin, eta jende askok ez daki eleberria beat belaunaldiko liburutik garrantzitsuenetako bat izan zela, nahiz eta bere garaian best-seller bihurtu zen. Izan ere, liburu handi bat da, eta liburutegian maileguan eskatu eta irakurtzera animatzen zaituztet.

Era berean, oso irakurketa etsigarria ere badago, filma ikusi ondoren (adibidez, **El club de los poetas muertos**). Jakina, kasu askotan hori guztia gustu kontua da. Eta nahi duenak konparatu ahal izateko, edo liburua irakurri eta gero zinemara egokitzeko esperientzia bizi ahal izateko - edo alderantziz- liburutegian liburu eta pelikula pack batzuk aukeratu ditugu.

Nik baserri bat neukan Afrikan

Adibidez, **Memorias de Africa**. Robert Redfordek eta Meryl Streeppek antzeztutako film ospetsua Isak Dinensen daniar idazlearen liburu batean oinarrituta dago; edo horietako batzuetan, egia esan. **Memorias de África** filmak zazpi Oscar irabazi zituen, baina Dinensen eleberri eta ipuinen kalitate literarioa sari horien mailan dago; izan ere, Danimarkako idazlea hainbat aldiz izan zen Nobel sarirako hautagaia. Bitxikeria gisa, liburutegian ditugun liburu eta pelikularen aleak azal berekoak dira, filmaren fotograma bat, bi aktoreen irudia ilunabar afrikar eder baten gainean ebakita duena, Ngong mendixken azpian (eta esaldi ospetsu horrekin, literatur abiapuntu ezagunenetako batekin, hasten da eleberria: «Nik baserri bat nuen Afrikan, Ngong mendixken oinean»).





Los girasoles ciegos

Alberto Mendezen liburuak ere arrakasta handia izan zuen, bai zinemarako egokitzeapenean, bai jatorrizko eleberrian. Filmak Goya sari bat irabazi zuen (baina "porrot" txiki bat izan zen, hamabost izendapen izan baitzituen) eta liburua Kritikaren sari nazionala izan zen eta 250.000 ale baino gehiago saldu zituen. Istorioak,

ordea, alde tristea du: Alberto Mendez, idazlea, bere obraren arrakasta ezagutu gabe hil zen, beste idazle batzuekin gertatzen den bezala. «**Los girasoles ciegos**» Gerra Zibilean girotutako lau kontakizun dira, elkarrekin lotzen direnak eta puntu komun bat dutenak: porrota.

Badago zure esku dagoen liburu-filmen pack gehiago (adibidez,

Elling, beste batean aipatu duguna, edo Ernest Hemingwayren **Adios a las armas**), baina amaitzeko, egile nafar baten komiki baten zinemarako adaptazioa aipatu nahi genuke: Asisko Urmenetaren **Gartxot**. Kasu honetan pelikulak pertsonaiez eta agertokiez egin dugun irudia zapuzteko arriskurik ez dago; izan ere, pertsonaieztatik, komikiko irudietatik, abiatzen gara, eta horiek dira, gainera, Asisko Urmenetak berak zuzendutako filmean animatzen direnak. **Gartxot** filmak - eta komikiak- XII. mendeko historia bat kontatzen du. Gartxot, bardoa, deseriratu du Orreagako abadeak; eta, Mikelot, haren semea, bahitu dute fraide bihurtzeko eta latinez kantatzeko. Baina Mikelotek ihes egingo du eta berriro hasiko da kantuan aitarekin, herriz herri.



Patxi Irurzun,
Utzamako liburuzaina

Kontzertu interesgarri bat Larraintzarren

Amaitzeko, literatura eta egokitzen zinematografikoekin lotuta, hiru gauza aipatu behar dira. Lehenengoa, liburutegian eskuragarri dugula Pedro Almodovarrek bere hurrengo lanetako bat oinarrituko duen liburu: Lucia Berlinen **"Manual para mujeres de la limpieza"**. Bigarrena, RTVEk app bat duela eskuragarri, RTVE play, eta horren ataletako bat, hain zuzen ere, literatura-lanetan oinarritutako filmai eskainita dagoela, eta Almudena Grandesen **Malena es nombre de tango**, edo Antonio Orejudoren **"Ventajas de viajar en tren"**, bezalako filmak dohainik ikus daitezkeela. Eta hirugarrena (nahiz eta literatura eta zimenaren arteko loturarekin zer ikusirik ez

izan -baina bai beste bi diziplina artistikoren arteko loturarekin, rocka eta poesia-): Luter rock urbanoko gaztelaniazko ahotsik nabarmenetako batek joko du

Larraintzarren apirilaren 1ean. Luterrek Pereza edo Marea bezalako taldeentzat telonero gisa jo du, eta batek daki, agian sorpresaren bat izango dugu...





Askorentzat, munduko lorerik bitxiena eta dotoreena da orkidea

Gure inguruan naturak zer eskaintzen digun hobeto ezagutzeko kolaborazio berria estreinatzen dugu hemen, Anuenaturak sinatua. Hilabete honetan, bide bazterrak arreta gehiagoz begiratzeko gonbitea egiten digu, hainbat orkidea ikusteko aukera baitugu gure inguruan.

Orquidatzeak, gehienbat, eskualde tropikaletan hazten dira, baina hemen aipatuko ditugunak Anuen eta Odietan ere hazten dira. Loraldia, martxo eta uztaila bitartean burutzen da eta ez dira oso handiak, baten bat izan ezik.

Ezaugarri bereizgarriena lorearen petaloren bat eraldatu egin dutela da, labelo izenaz ezagutzen dena. Batzuk, leku lehorretan, eta besteak, hezetasun handiko esparruetan aurkituko ditugu. Askorentzat, munduko lorerik bitxi eta dotoreena da.

Ophrys generokoak

Erle emea imitatzen dute, ile eta guzti, eta gainera, erleen hormona sexualen antzeko usaina dute. Hain imitazio ona izanik, erle arrarentzat benetako sexu deia izaten da.

Talde honetan aurkituko ditugunak: ***Ophrys fusca*, *ophrys lútea*, *ophrys insectifera*,**

***Ophrys apifera*, *ophrys tenthredinifera*.**

Orchis generokoak

"***Orchis***" hitza grezieratik dator eta barrabilak esan nahi du. Landareen tuberkuluak borobilak direnez, barrabilak gogorarazten omen dituzte.

Loreak galburu moduan kokatuta daude eta kolore askotakoak dira. Koloreak intsektuak erakartzeko erabiltzen dituzte. Eztigai edo nektarraren bila joaten dira intsektuak. Gehienbat lekulehorretan hazten dira, baina ***Orchis laxiflora*** hezetasun handiko belardietan, ia urpean agertzen da. Gure lurraldean leku askotan aurkitzen ziren, baina dreñaiak direla eta, orain, leku gutxitan ikusten dira.

Talde honetan daude: *Orchis purpurea*, ***Orchis laxiflora*, *Orchis ustulata*, *Orchis anthophora* (acera), *Orchis fragans*, *Orchis morio*, *Orchis maculata*, ...**



Orchis Purpurea



Serapia



Orchis Anthophora edo Acera



Beste batzuk sailkatzeko zailak dira

Himantoglossum hircinum, adibidez, ugaria da eta 50 zentimetroko luzera baino gehiago izan dezake. Bide bazterrean aurkitu daiteke. Aipatuko ditudanak ugariak dira, baina gehiago ere badaude.

Talde honetan daudenak: *Anacamptis pyramidalis*, *serapiak*, *platanthera bifolia*, *Dactilorhiza elata*...

Anacamptis pyramidalis eta *serapiak* oso ugariak dira.

Cephalanthera damasonium gehienbat pinudietan agertzen da.



Anuenatura



▲ *Ophrys Lutea*



▲ *Laxiflora*



▲ *Ophrys Fusca*

Oliva Mariezkurrena Etxegia, 105 urtetan hil da

2021eko azken egunean hil zaigu Oliva Mariezkurrena Etxegia, Igoako Salbadoren bordan jaio zena. 1916ko maiatzaren 2an sortu zen Salbadoren bordan, beraz, 105 urte zituen hiltzerakoan. Aita, Antonio, Eratsungoa zuen, eta ama, Maria Antonia, berriz, Igoakoa.

Senartzat Francisco Zubillaga, arrarastarra, hartu zuen eta Arrarasko Urrutiaberrin bizitu ziren urte luzez, eta bertan 10 ume izan zituzten, denak mutikoak. 1956. urtean Berastegira aldatu zen familia osoa eta hara joan ondoren ere beste bi ume izan zituen, baina Gipuzkoa aldean biak izan ziren neskatoak.

Ez da edozein adin horretara iristen. Dena dela, aipatuko dugu, Juanita Barberia Aranguren, Iriberrikoa, Arribera ezkontzaz joan zena eta

2020an hil zitzaiguna, hau ere 105 urtetara iritsi baitzen.

Gure alderdian Olivari gelditzen zaizkion ahaide guziei gure doluminak eskaini nahi dizkiegu.



▲ Oliva Mariezkurrena bere alaba eta bilobarekin eta Amaia Azkue Berastegiko alkatearekin, 2016an.

2022ko urtarrila

2022ko urtarrilean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ANUE Burutain

Lucas Iraola Ripodas, Oscar eta Lauraren semea, urtarrilaren 9an sortua.

Ezkontzak:

Guk dakigula, urtarrilean ez da ezkontzarik izan.

Heriotzak:

BASABURUA Arrarats

Pedro Barberia Iturralde, **Iriarteko** nagusia; urtarrilaren 30ean hil zen 89 urtetan.



▲ **Pedro Barberia**

Ihaben

Pilar Izagirre Gabilondo, **Ihabengo errotako** etxekoandrea, urtarrilaren 14an hil zen 85 urtetan.



▲ **Pilar Izagirre**

ODIETA Gelbentzu

Martina Mariñelarena Arraztoa, Jon eta Rakelen alaba, urtarrilaren 23an sortua.

“ Zorionak gurasoei ”



▲ **Maddi**, pozez beterik, Martina altzoan duela

Igoa

Martin Arregi Lasarte, **Otsanbelako** nagusia, urtarrilaren 7an hil zen, 76 urtetan



▲ **Martin Arregi**

ULTZAMA Arraitz

Mercedes Zenotz Oiaregi, **Arotzaren etxeko** etxekoandrea eta Migel Landaren alarguna; urtarrilaren 2an hil zen 92 urtetan.

Eltzaburu

Carlos Etsain Narbaetz, **Etsaindarren** etxeko semea, urtarrilaren 13an hil zen 86 urtetan.



▲ **Carlos Etsain**

Iraizotz

Ascensión Perez Iribarren, **Martintzeneko** alaba, urtarrilaren 24an hil zen, 82 urtetan



▲ **Ascension**

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





Bete ezazu
despentsa
urte guztirako



martxoak 10 - 30

**Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura**

Oinak lurrean



Eskatu Nafarroa
hegoaldeko oliba-olio birjina
estra, kontserbak, arroza,
pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta ekoizlearen
jatorrizko prezioan.



eko

errigora.eus



eko

eko

eko